

**2017ko IRAILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA** **8 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko irailaren 28an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Aitor Korta Etxabe jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Naiara Carvajal Larrañaga and.
Jarduneko idazkaria	Nagore Artamendi Garmendia and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2017ko UZTAILAREN 27ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2017ko uztailearen 21etik irailaren 22ra

Segidan, Alkatezak 2017ko uztailearen 21etik irailaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2017ko irailaren 4tik 18ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 4tik 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- TXOSTENA: 2017ko AURREKONTUKO KREDITU-ALDAKETAK ONARTZEAN (2017-KALD-000003-00; 2017-KALD-000005-00; 2017-KALD-000006-00; 2017-KALD-000007-00), AURREKONTUEN EGORKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

Udalbatzak jakin berri ditu Kontu-hartzaitzak 2017ko abuztuaren 8an egindako txostena: aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa, eta Udalak onartu berri dituen aurrekontuko kreditu aldaketen ondorioz egin beharrekoa zena.

5.- ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

2016 I 133 0001 espedientea

Udalbatzarrak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, onartu egin zuen Zarauzko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena –UDALHITZ 2008-2010–. Gaur egun aplikatzen jarraitzen da.

Aipatutako akordio horretan, alde zuzenetik Udaltaldeak lan-baldintzetan eta ordainsari-baldintzetan aitortuak zituen hobekuntzak jasotzeko behar zirela, eta egia bada ere horietako batzuk jasotzeko zirela, Osagarri Pertsonal Iraunkorra aitortua zuten langileei erabakitako soldata-igoerak aplikatzeari berariaz jasotzeko geratu zen.

Gainera, 8. artikuluan bertan honakoa jasotzen da:

8. artikulua.- Baldintza onuragarrienak eta lansari bermea.

Erakunde edo pertsonen dagokienek, Hitzarmena gaitzen duten eta alde zuzenetik onartutako baldintzak ezarri ahal izango dira; era berean, Hitzarmen honetan zehazten den lansari-erregimena indarrean jartzearen ondorioz ordainsari finkoak eta aldirikakoak txikituz gero, edo aurreko lanpostuen titularren artean ordainsari diskriminazioa gertatuz gero, aldea jasotzeko eskubidea izango da. Alde hori ez da xurgagarria izango eta arau legalek edo ohiko arauak ezarritako ordainsari orokortako igoeren batz bestekoa jasotzeko aukera izango dute.

Aipatutako hobekuntza beti eta etenik gabe aplikatu izan da Zarauzko Udalean, osagarri pertsonal iraunkorrak bazeudela aitortu zen momentuaz geroztik.

Irizpidea modu orokorrean jasotzeko geratu zen arren, islatuta geratu izan da Udalak hartu dituen akordioetan. Akordio horietan berariaz adierazi izan da osagarri pertsonalak ez zirela xurgagarriak izango, besteak beste, honakoetan: lanpostuen balorazioaren onarpena (Udaltaldeak 1994ko abenduaren 29an egindako bilkuran onartua); Udaleko eta bere fundazio publikoetako lan-kontratu mugagabeko langileak karrerako funtzionario izatera lortzeko hautaketa frogaren deialdia (Udaltaldeak 1996ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran onartua); Gizarte Zerbitzuetarako Fundazio Publikoaren Langileentzako Enplegu Plana (Tokiko Gobernu Batzarrak 2006ko martxoaren 9an egindako bilkuran onartua).

Duela gutxi Udaltaldeak, 2015eko abenduaren 30ean egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIARI, eta kasu horretan ere, berariaz aipatu gabe geratu zen ordainsari-hobekuntza hura. Aipatutako araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko martxoaren 8an.

Gaur egun, eta egoera horren aurrean, lanpostuen balorazioko batzorde teknikoak, araudi horren 5. artikuluari jarraituz, proposamen bat egin du araudi horren 12. artikuluan jasota gera dadin Osagarri Pertsonal Iraunkorrei zein aldaketa aplikatu ahal zaizkien, ondoren adierazi bezala:

12. artikulua. Destino-osagarria edota berariazko osagarria jaitea

“Lanpostuen balorazioaren ondorioz edo giza baliabideak arrazionalizatzeko programek eragindako lanpostu-aldaketaren ondorioz, ordainsariak murriztu egiten badira ordura arte esleitutakoarekin alderatuta, lanpostuaren titularrari osagarri pertsonal bat emango zaio.

Osagarri pertsonala duten enplegatuei aplikatu egingo zaizkie itun desberdinetan gainerako ordainsarietarako lortzen diren abantaila ekonomiko berberak.”

Giza Baliabideetako arduradunaren txostena ikusita, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIAREN 12. artikulua aldaketari, adierazitako moduan.

Bigarrena.- Araudiaren aldaketa jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek euren erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea iragarki-taulan, Udalaren web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da ezagutzera.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, araudia behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

6.- KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA BILEREN MAIZTASUNA ALDATZEA

2016 IIII 0008 espedientea

Zarauzko Udalbatzarrak 2016ko irailaren 29an egindako bilkuran erabaki zuen ZARAUZKO UDALEKO KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA eratzea arau hauek ematen dizkioten funtzioekin: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak (320. artikuluan), eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (30/2007, urriaren 30ekoa) zati batean garatzen duenak (21. eta hurrengo artikuluetan).

Era berean, aipatutako organoaren osaera eta funtzionamendu arauak ere onartu zituen.

Bileren maiztasun eta aldizkakotasunari dagokionez, honakoa onartu zen:

"Kontratazio Mahai Iraunkorrek hilero ohiko bilera bat egingo du, hilabete bakoitzeko lehen astearteko eguerdiko 12:00etan. Ez da beharrezkoa izango deialdia eta gai-zerrenda egitea. Deialdia eta landu beharreko gaien dokumentazioa mahaikideen eskura egongo dira Kontratazio Unitatean, bilera-egunaren aurreko ostiraletik

Finkatutako eguna jaiegun izanez gero, haren aurreko edo hurrengo egun baliodunean egingo da, ordu berean."

Aurrekoa gorabehera, mahaia osatu zenetik izandako esperientziatik eta egin diren ezohiko bilerengatik, komenigarri deritzogu Kontratazio Mahaiaren ohiko bileren maiztasuna handitzea tramite hori, ahal den neurrian, Udalaren kontratazio prozedura desberdinen beharretara egokitu ahal izateko.

Horregatik, 2017ko abuztuaren 11n egindako bileran Kontratazio Mahai Iraunkorrek berak hala proposatuta, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Udaltzarrak 2016ko irailaren 29an egindako bilkuran eratu zuen KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRAREN bileren aldizkakotasuna aldatu eta hamabost egunetik behin egitea, ondorengo testuarekin bat etorrira, eta onartu ziren gainerako funtzionamendu-arauak bere horretan mantentzea.

“Kontratazio Mahai Iraunkorrek **hamabost egunetik behin** ohiko bilera bat egingo du, hilabete bakoitzeko **lehen eta hirugarren astearteetan**, eguerdiko 12:00etan. Ez da beharrezkoa izango deialdia eta gai-zerrenda egitea. Deialdia eta landu beharreko gaien dokumentazioa mahaikideen eskura egongo dira Kontratazio Unitatean, bilera-egunaren aurreko ostiraletik

Finkatutako eguna jaiegun izanez gero, haren aurreko edo hurrengo egun baliodunean egingo da, ordu berean.”

7.- UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEKO ORDEZKARI BAT ALDATZEA

2015 O 020 0002 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	8	(EH Bildu, , 2 Irabazi Zarautz)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udaltzarrak erabaki hau hartu du:

“Udaltzarrak, 2015eko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, zinegotzi batzuk izendatzea erabaki zuen, kide anitzeko organoetan Udaltzara ordezkari zezaten.

Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzorderako, entitate horren estatutuetan aurreikusita dauden bost kideak izendatu ziren.

Gaur egun aldaketa bat proposatu da, zehazki, MAITE GARRASTAZU ARANGUREN andrea ordezkatzeari.

Aurrekoa ikusita eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

PATXI ELOLA AZPEITIA jauna izendatzea Zarauzko Udalaren ordezkari Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzordean, MAITE GARRASTAZU ARANGUREN andrearen ordezkari jardun dezan.”

Une honetan **kontu-hartzaile** andrea bilkuratik joan da.

8.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Espainiarako soldata-eredu eta errenta-itun berrien aldeko mozioa

2017 O 001 0022 espedientea

Segidan, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

ESPAINIARAKO SOLDATA-EREDU ETA ERRENTA-ITUN BERRIEN ALDE ZARAUZKO UDALEKO TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

ZIOEN AZALPENA

PPren gobernu-aldian soldata-desberdintasuna izugarri handitu da, baita jarduera berreskuratu eta langabezia-tasa jaitsi den azken urte hauetan ere. Zehazki, soldata eskasak dituztenen % 40ren soldata jaitsi egin dira, bereziki aldi baterako kontratuak dituzten langileen artean.

Jaitsiera horiek, nagusiki, gazteenei eragiten diete: 25 eta 34 urte bitarteko langileen soldata % 5,5 jaitsi dira termino errealean.

Soldatek izan duten bilakaera horrek izugarri handitu du langile pobreen fenomeno: pobrezia-arriskuan dauden langileen portzentajea % 10,8koa zen 2012an eta % 13,1ekoa 2015ean (batez besteko diru-sarreraren % 60tik beherako errentak dituzten langileen proportzioa). Greziak eta Errumaniak bakarrik gainditzen dute ratio hori.

Eredu hori finkatu egin da, eta, ondorioz, langile berriak euren soldatetan % 25eko deskontuarekin ari dira sartzten lan-merkatuan, gainerako langileekin alderatuta. Zulo hori handitu egin da azken urteotan.

Espainiako egungo soldata-ereduak ez du uzten garapen ekonomiko eta soziala espainiar guztiengana zabaltzen. Horrek dakartzan ondorio sozial negargarriez gain, egungo ereduak gero eta zentzu gutxiago du ikuspuntu ekonomiko hertsienean ere: susperraldi ekonomikoa arriskuan jartzen du, familien kontsumoaren normalizazioa eragozten duelako, asko oraindik krisiaren aurreko mailatik behera baitaude. Frogatuta dago, soldata baxuen testuinguruan, gure

herrialdeko kontsumoa maila onargarrietan mantentzen ari dela, familien aurrezki-tasak murriztearen kontura egiten ari delako. Eta aurrerabide hori sostengaezina da.

Horrenbestez, PSOeren lehentasunezko helburua da Espainian jarrita dagoen dinamika haustea (soldata baxuak, prekarizazioa eta langile pobreak) eta urrats bat ematea gure herrialdean soldata duinen eredu bat jartzeko, produktibitatearen bidezko banaketan oinarrituta.

Horiek horrela, Zarauzko Udaleko Talde Sozialistak ondorengo MOZIOA aurkezten du Udalbatzarrak kontuan har eta onar dezan, Espainiako Gobernuari honako hau eskatzeko:

1.- Patronalaren eta sindikatuen arteko akordioetan urteroko soldata-igoerak bultzatzea, 2021erako soldatek berreskura dezaten krisiaren aurreko aldiaren errenta nazionalaren banaketan zeukatzen pisua. Zehazki % 2 eta % 3 arteko soldata-igoera proposatzea 2018an, eta % 2,5 eta % 3,5 artekoa segidako urteetan (2019, 2020 eta 2021).

2.- Lanbide arteko gutxieneko soldataren pixkanakako gehikuntza hitzartzea sindikatuekin, 2020 urtean hileko 1.000 eurotara iritsi arte.

3.- Lan-erreforma indargabetzea, langileek berreskura dezaten negoziatorako ahalmena.

4.- Kausalitate-printzipioa indartzea, hori izan dadin aldi baterako kontratuen justifikazio bakarra; eta laneko ikuskaritza indartzea, kontratu horiek benetan aldi baterako eta salbuespenezko tresnak izan daitezten.

5.- Langile publikoen soldata-igoera eta inflazioaren igoera parekatzea 2018rako, osagarri gehigarriak sartuta; horien bidez lortuko da galdutako erosahalmena berreskuratzea eta sektore publikoan asteko 35 orduko lanaldia orokortzea, ordainsari ekonomikoak jaitsi gabe.

6.- Gazteentzako aurrez aurreko plan bat martxan jartzea, neurri zehatzekin; esate baterako, txanda-kontratua eta praktiketako kontratua sustatzea edo lanekoak ez diren praktiken araudi berri bat egitea.

7.- Neurri zehatzak hartzea generoen arteko soldata-aldearen aurka, eta Laneko Berdintasun Lege bat onartzea, non besteak beste jar dezan derrigorrezkoa dela langile guztien soldatak eta euren kontratu-modalitateak publikoki ezagutzea.

8.- Neurriak hartzea autonomo faltsuen prekarizazioaren fenomenoaren eta laneko super esplotazio-modu berriak ezabatzeke.

Eztabaidaren bukaeran, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute, eta emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	2	(2 PSE-EE)
Aurkako botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	16	(10 EAJ-PNV, 6 EH Bildu)

Bozketan berdinketa gertatu dela eta, Erregelamendu Organikoak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, berriro bozkatzeari ekin diote. Oraingo bozketa honela geratu da:

Aldeko botoak:	2	(2 PSE-EE)
Aurkako botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	16	(10 EAJ-PNV, 6 EH Bildu)

Bigarren bozketa horretan ere berdinketa gertatu denez, alkate jaunaren aukera nagusituta, proposamena onartu gabe geratu da.

9.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Zarautzen apartamentu turistikoak arautzeko eskaera

2017 O 001 0024 espedientea

Hurrena, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri dute. Honela dio:

IRABAZI ZARAUTZ TALDEAREN MOZIOA: ZARAUTZEN APARTAMENTU TURISTIKOAK ARAUTZEKO ESKAERA

ZIOEN AZALPENA

Turismoa gure herriko jarduera ekonomiko nagusietako bat da, eta horregatik garrantzitsua da, batetik, Udalak eta herritarrek gogoeta egitea haren abantaila eta eragozpenei buruz eta, bestetik, haren gaineko neurriak hartzea.

Ildo horretan, azken hilabetetan gure taldeak behin baino gehiagotan eskatu dio udal gobernuari landu dezala apartamentu turistikoen araubidea, ikusirik zenbat lokal komertzial bihurtu diren apartamentu turistikoetan eta kontuan hartuta horri buruzko udal araudirik ez dagoela.

Donostian dagoeneko hasierako onespina eman diote ordenantza arautzaileari, eta Bilbon eta Iruñean ere prestatzen ari dira.

Badakigu Zarautzen gertatzen ari denak ere gure eskaerak berresten dituela:

- Lokal komertzialak ostatu turistikoetan bihurtzeko fenomeno berria da, baina handituz doa. Datu bat emateagatik, azken 24 hilabetetan gutxi gorabehera 14 lizentzia eman dira, erdiak baino gehiago herriaren erdigunean.
- Ez dago udal araudirik horri aurre egiteko; edozein lokal komertzialetan onartzen dira. Hori arriskutsua da jarduera komertzialerako, prezioak igotzen direlako eta lokalak galdu egiten direlako.

- Zarautzen ohikoa izan da etxebizitzak helburu turistikoekin alokatzea, baina fenomeno horrek boom bat bizi du AirBnb edo horren moduko plataformen sorrerarekin. Plataforma horretako datuen arabera:
 - Zarautzen 110 jabetza daude aktibo alokairu turistikoan.
 - Gutxi gorabehera 180 logela eskaintzen dituzte.
 - Alokairu ohikoena 1 eta 3 hilabete artekoa da.
 - Batez besteko prezioa 70 eurokoa da, gela eta gau bakoitzeko.

Beste lekuetan gertatzen den bezala, etxebizitzak turismorako erabiltzeak ere badu bere alde iluna: bizitzeko alokairuen eskaintza jaitsi egiten da eta prezioak, berriz, igo, bai alokairukoak bai salmentakoak. Uste dugu horregatik dela Zarautz Estatuan salmentako etxebizitza garestienak eta alokairuko garestienetakoak dituen udalerria.

Kontraesan horien konponbidea ezin da merkatu-askatasunaren esku utzi. Eskaera igotzen ari da, tresna berriak daude eta etxebizitza edo lokal jabeek ahalik eta irabazi handienak bilatzen dituzte. Beharrezkoa da araudi baten bidez zenbait neurri hartzea, saturazioa, gertatu aurretik, saihesteko, eta gure herrirako eredu turistiko bat era parte-hartzailean adostea, lehentasunen hierarkia bat jartzeko; alegia, guztiz turistikoak diren ostatuei lehentasuna ematea (hotelak eta kanpinak), etxebizitza-erakinetan jartzen diren ostatuei eman beharrean (bigarren etxebizitzak eta alokairu turistikoak).

Horregatik, ostatu turistikoak arautzeaz gain, beharrezkoa da lantzen ari den Turismoaren Plan Estrategikoak kontuan hartzea kontu horiek guztiak eta askoz ere modu parte-hartzaileagoan lantzea.

Horiek horrela, Irabazi Zarautz udal taldeak ondorengo AKORDIOAK hartzea proposatzen dio Udalbatzari:

LEHENENA: Zarauzko Udalak Zarauzko apartamentu turistikoak arautzeko ordenantza egingo du.

BIGARRENA: Zarauzko Udalak gogoeta bat sartuko du egiten ari den Turismoaren Plan Estrategikoan, apartamentu turistikoek eta, orokorrean, turismoak gure herrian dituen ondorioei buruz. Horretarako, planaren parte-hartze prozesua errepikatuko da, zabalkunde handiagoa emango zaio, eta herritarrei alde aurretik informazio hau emango zaie: aurreroko Plan Estrategikoaren emaitza, zein den Zarauzko ostatu turistikoaren eskaintza eta azken urteotako garapena, eta jarduera turistikoaren ondorio ekonomikoak, bai herrian orokorrean bai udal aurrekontuetan.

Gaia eztabaidatu ostean, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	–	

Beraz, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin, atzera bota du IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako mozioa.

10.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Ongizatearen aldeko mozioa

2017 O 001 0026 espedientea

Era berean, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

ONGIZATEAREN ALDEKO MOZIOA

Zioen azalpena.

2017ko egoeraren datuek lan-merkatuaren eta jarduera industrialaren hondatze kezagarria erakusten dute, nahiz eta % 3ko hazkundera izan dugun.

Ikusten dugu langabezia oso motel jaisten ari dela eta enpleguaren sorrera gelditu egin dela; kontratazioa ezegonkorra eta diskriminatzailea da.

Etsigarria da ikustea, BPG igotzen ari bada ere, biztanleria aktiboa jaitsi egin dela, emakumeenganako diskriminazioa hazi dela, prestazioak eskasagoak direla, azpienplegua orokortu dela eta autonomoen kontzeptu oker bat nagusitzen ari dela.

2008tik 2015era soldatek 3,8 puntu galdu dituzte erosahalmenean, eta gaur egun BPGren 46,7 dira, 2007an EAEn % 49,2 baziren ere.

Diskriminazioak gora egin du. Kontratu finkoa duenak aldi batekoak baino % 34,5 gehiago irabazten du, eta, beti, emakumeek baino % 25,3 gehiago. Lanaldi osoko lanpostuek dituzte soldatarik onenak. 25 urtetik beherakoek, berriz, lanpostu prekarioenak dituzte, eta % 30eko langabezia daukate.

Aurtengo lehen hiruhilekoan, Euskadiko 207.800 langilek hileko 1.094 euro kobratu dituzte, eta 74.400k ez dituzte hileko 449 euro gainditu.

Egia da EAEko batez besteko soldata Europako batez bestekoarekin parekatuta dagoela (28 herrialdeen EB), alegia, ekonomia indartsuenak baino beherago, eta hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeak baino gorago (Italia eta Frantzia izan ezik). Baina egia da, baita ere, banaketa ez dela orekatua; Europako 28 herrialdeetatik 26. postuan dago Lanbide arteko Gutxieneko Soldatan (LGS). Batez bestekoan egoteko, LGSk, gutxienez, hileko 1.135 eurokoa izan beharko luke (12 pagatan).

Laburbilduz, estatu honek prekarietatean oinarritutako bizikidetzaren eredu baten egiturazko seinaleak ditu; aberastasun-pilaketaren eta berdintasunaren artean gero eta distantzia handiagoa dago, eta soldatak eta pentsioak pisua galtzen ari dira, kontsumoaren eta ongizatearen kaltetan. Eredu hori ez da onargarria, ezta bidezkoa ere. Hori dela-eta, gure udal taldeak neurri zehatzak eta bitarteko batzuk proposatzen ditu Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari helarazteko, kontuan hartu eta inplementatu daitezten.

Ongizaterako neurriak.

- 1.- LGS berehala igotzea, hileko 1.200 eurotara; horrek bizitza duina ekarriko luke, eta hitzarmenetan soldata-igoerak bultzatuko lituzke.
- 2.- Hurrengo urteetan soldadak eta pentsioak KPItik gora % 2,5 eta 3,5 artean igotzea, galdutako erosahalmena berreskuratzeko eta laneko errentek BPGren % 60an parte har dezaten.
- 3.- Lan-munduan adinagatik, generoagatik, jatorriagatik edo beste edozein arrazoiengatik, eta, bereziki, emakume izateagatik gertatzen den diskriminazioa bukatzea.
- 4.- Arau orokor bezala, kontratazio mugagabea berreskuratzea, kontratazioetan gertatzen den iruzurra pertsegitzea eta esplotazioa dakarten eredu malguak ezabatzea.
- 5.- Asteko lanaldia gehienez 35 orduetara murriztea, soldata murrizketarik gabe, enplegua sortzeko eta langabezia jaisteko.

Eta horiek bete ahal izateko, ondorengo proposamenak egiten ditugu:

Hobetzeko neurriak.

- 1.- Langileen negoziazio-gaitasuna eta sindikatuen paper independentea indartzea. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu ez ditzala sindikatu nagusiak gehiago diskriminatu, funtzio erreala baino burokratikoagoa duten elkarrizketa-mahaiak inposatuz.
- 2.- Azken bi lan erreformak baliogabetu behar dira, eta elkarrizketa indartu, EAEn Negoziazio eta Babes Sozialeko Esparru bat sortuz, negoziazio kolektiboa indartzeko.
- 3.- EAJk eta PPK PSEren laguntzarekin adostutako aurrekontu eta zerga politikak errotik aldatzea proposatzen dugu, % 1eko muga jartzen baitiote soldaten gehikuntzari; horrek oztopatu egiten du kalitatezko lan merkatu bat eta ongizateko inbertsioak egotea.

Horrek, berez, murrizketak dakartza gastu sozialean eta azpiegitura egokietan, eta jarduera, kontsumoa eta berrikuntza industrialia ahultzen ditu. Soldata eskaseko lanpostuak eta diskriminazioa sortzen ditu.

- 4.- Beste aurrekontu batzuk posible eta beharrezkoak dira, kalkulatzen baita EAEn iruzur fiskala urtean 3.200 milioikoa dela eta beste 669 galtzen direla, Europako batez bestekoarekin alderatuta daukagun presio fiskal baxuagatik. Historiako BPG altuena daukagu, 74.100 miloi, eta 2007an baino zerga gutxiago biltzen dugu (% 2,66 BPG horrekiko).

Ondorioz, gastu gutxiago badago, beheraka egindako kontratuek soldaten pobretzea dakarte. Inbertsioei dagokienez, sanitatean, Europako 28 herrialdeetatik 23. postuan gaude; hezkuntzan, 25. postuan, eta, Etxebizitzan, 2009ko erdia inbertitu da. EAEko datuak dira.

Horrek adierazten du nolako zailtasunak dauden enplegu duinak sortzeko, hori egiteko baliabideak edukita ere.

Alderdi tradizionalak eta Eusko Jaurlaritzak ez dute borondaterik erakutsi saiheste fiskala behingoz bukatzeko, zerga-erreforma bat egiteko eta arlo hauetan inbertsioak egiteko behar diren baliabideak lortzeko: enpleguaren kalitatean, sanitatean, hezkuntzan, babes sozialean, garraioan eta eremu teknologiko berrietan.

5.- Gure proposamenaren helburua azkenean da ongizatea sortzea, bizikidetzaredu berri batean, herri-galdeketa baten bidez adierazita. Bizikidetzaredu horrek pertsonen duintasuna errespetatutako du euren bizitzan eta lanean. Bestalde, eredu industrial eta energetiko bat ere sortu nahi dugu; horrek enplegu berdeak sortuko ditu, energia-iturri berriekin, hondakinen kudeaketarekin eta lurraren birsorkuntzarekin lotutako jardueretan, sormenezko beste eremu batzuen artean.

Eztabaida amaitutakoan bozkatzeari ekin diote, eta hauxe izan da emaitza:

Aldeko botoak:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Beraz, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin, atzera bota du IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako mozioa.

— UDAL TALDEEK KATALUNIARI BURUZ AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

11.- Irabazi Zarautz udal taldeak: Kataluniari babesa emateko mozioa

2017 O 001 0023 espedientea

12.- Irabazi Zarautz udal taldeak: Kataluniari batasuna eta elkartasuna adierazteko mozioa

2017 O 001 0025 espedientea

13.- EH Bildu udal taldeak: Kataluniarekin Koordinazioguneak bidalitako mozioa

2017 O 001 0027 espedientea

14.- EH Bildu udal taldeak: Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat

2017 O 001 0028 espedientea

15.- EAJ-PNV udal taldeak: Herri katalanari elkartasuna adierazteko mozioa.

2017 O 001 0029 espedientea

Aztergai honetara iritsita, udal talde aurkezle bakoitzak atzera egin eta aurkeztutako mozioa kendu du gai-zerrendatik. Ondoren, hasierako haien ordeztu, elkarren artean adostutako beste mozio hau aurkeztu dute:

11.- EAJ-PNV, EH BILDU ETA IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEEK ADOSTUTAKO MOZIOA

Horrenbestez, EAJ-PNV, EH Bildu eta Irabazi Zarautz udal taldeek aurkeztutako mozio hau irakurri du idazkariak:

- 1.- Udalbatzak kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuko gorputz eta segurtasun indarrek egindako polizia operazioagatik, Generalitateko instalazioetan erregistroak eta arduradun legitimoen atxilotetak ekarri dituen.
- 2.- Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.
- 3.- Udalbatzak modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako 700 alkatek gora deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.
- 4.- Udalbatzak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa - Espainiako Gobernuak gidatutakoa - pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.
- 5.- Udalbatzak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera.
- 6.- Udal honek katalanen aldetik euren organismo eta instituzioen bitartez ematen diren libreki adierazitako erabakitze prozesu guztiak errespetatzen ditu eta errespetatzea eskatzen du. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.
- 7.- Mozioa hau onartzen denetik urriaren bateko galdeketa bitartean Udaletxean "estelada blava" bandera jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz.
- 8.- Udalbatza honek, Gure Esku Dagok, datorren larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 17:30ean deitutako manifestaziora, herritarrak parte hartzera deitzen ditu.
- 8.- Udalbatza honek herritarrak deitzen ditu Gure Esku Dagok datorren larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 17:30ean deitutako manifestazioan parte hartzera.

Udal taldeek beren iritzia eman ondoren, mozioa bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	18	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	2	(2 PSE-EE)
Abstentzioak:	–	

Horrenbestez, Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoarekin, transkribatutako mozioa onartzea.

16.- ESKARI-GALDERAK

Gai-zerrendako puntu honetan gai hau izan dute hizpide:

- Osoko bilkuretan hitza hartzeko ezarrita dauden denborak errespetatzea eta errespetatuaraztea.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarretan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.